

uztarria

|| Azpeitiko herri aldizkaria || 2016ko azaroa || 188. zenbakia || [Irurri](#) || || || ||



LOIOLATIK ERROMES


Basilika atariko harlauzetatik Manresara,
Inaziotar Bidea egin duten azpeitiarrak 20



HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


INNOVA
HORTZ KLINIKA

Jose Artetxe kalea, 5 (ambulatorio ondoan) 20730 Azpeitia

 943 025 955

MILAR LARRAMENDI

Larra^{||||}endi
Sukalde Gunea



Smart Retail
sistema berria



AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



Jarri hemen zure publizitatea

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 188.a (2016ko azaroa)
Urtea. XVII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari



azpeitia udala



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2016KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



iritzia

Inkesta. Ehiza: alde, kontra edo berdin zaizu? **13**

mamia

Xabier Madina. Kolorearekin Elkarteko zuzendariari eta kideari elkarrizketa **04**
Klik! Iñaki Arregik Nepalen egin duen treking-a, iruditan **16**
Antzerki Topaketak. Herriko talderik ez da aurten, baina azpeitiar asko bai oholtzan **24**



jakiteko

Atzera Begira. El Salvadorreko gerran internazionalista ibilizen Miren Odriozolaren bizipenak, liburuan **34**

Ba aL dakizu kontxu odriozola azpeitiar aktore zena omendu dutela Lekeitioko XXIX. Euskal zine Bileran? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide **943 15 03 58**

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. **gara** Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

XABIER MADINA MANTEROLA

Kolorearekin Elkarteko zuzendaria eta kidea

“Gorputza ezaqutzen ari naiz dantzaren bidez”

Gizarteak dituen aurreiritziak bazter utzi, eta dantza inklusiboa sustatzeko koreografiak sortuz lanean dihardu azpeitiarrak. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala (Donostia)

Bizitzako oztopoen gainera beti, ilusioa, borrokarako gogoa eta gurpildun aukia lagun, urrutira iritsi da Xabier Madina. Ingeniaritza informatikoa lizentziaduna, teknologia berri eta informatikaren zale susua da. Horiez gain, desgaitasuna duten pertsonen sormen gaitasuna eta dantza inklusiboa sustatzeko urratsa egingo du.

Zer gaixotasun duzu?

Garun paralisia dut, baina jaio nintzenean nire familiak ez zekien alterazio hori nuela. Urte eta erdi nuela konturatu ziren; izan ere orekarik ez nuen, burua erori egingen zitzaidan... Garai hartan, patologia hori ez zen ezaqutzen Azpeitian, eta gurasoek Madrilgo eta Bartzelonako medikuengana

eraman ninduten. Gaixotasun honek sistema motorean eragiten dit eta mugimenduan.

Azpeitian jaio eta hazizinen. Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oso oroitzapen politak ditut. Garai hartan eskolak ez zeuden prestatuta gu bezalako jendea hartzeko, eta ez ninduten onartu Betharramdarretan. Idazten, irakurtzen eta eragiketa matematikoak egiten gurasoek irakatsi zidaten, etxean. Gero, nire gurasoek Betharramdarretako zuzendaria konbentzitu zuten ni baino urtebete gazteagoa zen anaiaren gela berean jartzeko. Lortu genuen! Lagunek bizkarrean jasotzen ninduten eskaileretan goragelara, ziztu bizian. Handik insti-

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1969ko irailak 5.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Donostia.

tutura pasatu nintzen, eta han bai ondo, ez zegoen eta eskailerarik. Azpeitira gero eta gutxiago joaten naiz, baina eskolan kuadrilla polita egin nuen, eta oraindik eusten diot harremanari.

Noiz independizatu zinen? Garai hartan, zu bezalako zailtasunak zituzten pertsonen horrelako urratsa egitea ez zen ohikoa. Nola hartu zuten etxeok eta ingurukoak?

Prozesua pixkanaka izan zen. Ingeniaritza informatikoa ikasten hasi nintzen 1989an, eta hamar urte behar izan nituen bukatzeko, nire ikasketa erritmoa ohikoa

baino konplexuagoa da eta. Karrerako lehen urtean aitak eramaten ninduen astean behin Donostiara. Bigarren ikasturtean, Donostiako familia batek hartu ninduen etxean. Gero, lgerdo bidean dagoen gazteen aterpetxe batean sei urte egin nituen; beste bi urte ikasle pisu batean, Grosen. Urte oso onak izan ziren, mundial pasatu nuen. Ondoren, Errenterian etxea erosi nuen, independente izateko beste pauso bat emanez, eta lau urtez bizi izan nintzen han. Etxe hura saldu, eta gaur egun Matia Fundazioaren egokitutako apartamentu batean bizi naiz, Antiguan. Gauza guztietarako denbora gehiago behar dut, baina autonomoa naiz: baka-rik dutzatzen naiz, jantzi... Guk ez



dugu nahi gure bizitza besteek antolatzea, edo guregatik besteek erabakiak hartzea; izan ere, bizitza norberarena da. Esaterako, orain bizi naizen Matia Fundazioan baldintza bat jarri nuen, nik nahi nuenean sartu eta aterako nintzela.

Zu bezalako arazoak dituzten pertsonentzat zertan erraztu dira gauzak urte guztiotan?

Garai batean kalean ez nuen ikusten gurpildun aulkirik, eta jendeak asko begiratzen zidam. Orain ez dut halako sentsazioirik. Gainera, lehen ez bezala, gaur egun edozein autobus har dezaket, dena egokituta baitago; eta unibertsitatean eta, oro har, erai-kin guztietan zein kalean ez dago oztopo arkitektonikorik. Horiez gain, desgaitasuna duten pertsonentzat laguntza zerbitzua ere eskaintzen dute gaur egun. Esaterako, azterketa batean laguntza behar badut pertsona bat jartzen didate.

Egunerokoan zertan hobetu beharko lukete gauzak?

Askok dago egiteko eta hobetzeko. Oraindik ere ez gara berdinak zu eta ni. Ezagutzen ez nauen jendeak Xabier baino lehenago gurpildun aulkia ikusten du, aurreiritziak dituzte eta blokeoa sortzen da. Halakoetan, pazientzia handiz, kaxotx artean, sinpatikoarena egiten dut. Baina, harremanetan hasten garenean, pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutu ahala, berdintasunean oinarritutako harremana sortzen da eta benetako

“Ezagutzen ez nauenak xabier baino lehenago aulkia ikusten du”

“Gurpildun aulkian gaudenez, inor ez da ausartzen gu ukitzera”

Xabier ezagutzen dute. Gizarteak aurreiritzi horiek bazter utzi behar ditu.

Dantza inklusiboa sustatzeko helburuarekin, Kolorearekin Elkartea sortu zenuen, 2013an. Zer urrats eman dituzue ordutik?

Denbora gutxian gauza asko egin ditugu. Koreografia txikiak sortu eta emanaldiak eskaini ditugu. Nire lehen ikuskizuna Ibaetako campuseko Carlos Santamaria liburutegian eskaini nuen. Victoria Eugenia antzokian ere bi aldiz egin dugu dantza, Dferian ere parte hartu dugu... Eta EHUKo udako ikastaroetan Kolorearekin Elkartearen proiektua azaldu genuen, bi egunez. Bestalde, Kukai dantza taldearen babeseta eta elkarlana ere oso garrantzitsuak dira. Kukaik sentsibilizazio proiektu bat du dantza kalera ateratzeko eta herrira gerturatzeko, eta formakuntza ikastaroa eman digute. Zalantzarik gabe, inklusibotasunak dantzari ekarpen handia egiten dio. Aberastu egiten du; alor guztietan, gainera. Izan ere, beste gorputz eta mugimendu batzuetara zabaltzen da.

Nortzuk osatzen duzue taldea?

Ezgaitasuna dugun hainbat gizon-emakume gara taldean; batzuk gurpildun aulkia erabiltzen dugu eta beste batzuek ez. Nire arazo bera duen lagun bat urtero joaten zen Bartzelonara dantza egitera, eta hura ikustera joan nintzen batean flipatuta geratu nintzen. Esperientzia haren harira sortu genuen Kolorearekin Elkartea.

Zuen emanaldiak ikusita, esan daiteke etengabe elkar ukitzen duten gorputzen dantza sentsualak egiten dituzuela, ezta?

Gurpildun aulkian gaudenez, inor ez da ausartzen gu ukitzera, kalkanbrea emango dugulakoanedo, eta mundu guztiak behar du kontaktua, ukitzea.

Zer eman dizu dantzak?

Gauza asko. Ahaldundu egin

nau, eta pertsona bezala garatzen lagundu dit. Ezintasuna dugun pertsonoi oso aukera gutxi eman izan zaizkigu gure sormena lantzeko eta artistikoki espresatzeko. Proiektu honi esker jabetu naiz edonorekin dantza egiteko gai naizela. Ikusi dut ezer ez dela polita edo zatarrak, eta dantzaren mugimenduaren bidez geure gorputzak ezagutzen ari gara. Jende asko ezagutu dut eta oso ondo pasatzen dut. Ederra da beste jende batzuekin helburu komun bat lortzeko lan egitea.

Askok uste dutenaren kontra, beraz, dantza egitea ez da terapia huts bat ezintasunak dituzuen pertsonentzat. Eztabaida dago gai horren inguruan. Izatez dantza terapeutikoa da, baina kokoteraino gaude terapiak egiteaz. Hori da arazoa, txikitatik gizarte honek esan digu

“Ahaldundu eta pertsona bezala garatzen lagundu dit dantzak”

“Teknologiari esker sortu egin dezaket: margotu, argazkiak atera...”

gure gorputzak gaizki eginda daudela, eta gaur egungo sistemak erabat lotuta ditu ezintasunak eta terapiak. Gainditu behar direnak dira gizartean urteetan egon diren mugak eta oztopoak, eta argi izan behar duguna da edozein gorputzek egin dezakeela dantza. Ezintasunak ditugun pertsonak artea egiten dugu, espresatu egiten gara, eta sormena garatzen dugu. Gaur egun, teknologiari esker sortu egin dezaket: margotu egiten dut eta baita argazkiak atera ere.

Garun paralisia duten pertsonak praktikatzan duten boccia kirola ere egiten zenuen garai batean. Azpeitian, esaterako, Amue izeneko taldea sortu zenuten lagun batzuek, ezta?

Bai, eta lehendakaria gurpildun aulkian duen kirol elkarte bakarra da Amue. Neu nintzen lehendakaria.

Maratoi erdian gurpildun aulkia atzeraka eramaten bakarra zara.

Hamaika urtez Espainiako txapel-duna izan naiz 100 metrotan. Gurpildun aulkian atzeraka joaten nintzen, hanka bakarrarekin bultzaka. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia ere egindakoa naiz. Bestalde, Bartzelonako Olinpiar Jokoe-tan izan nintzen, 1992. urtean, baina gure proba bertan behera

geratu zen. Olinpiar jokoen inaurazio ekitaldian neuk eraman nuen olinpiar zuzia, eta etxean dut gordeta.

Ezintasunak dituzten pertsonentzat informatika-aplikazioak garatzeko enpresa ere sortu zenuen.

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokitutako aplikazioak sortzeko X Madina enpresa sortu nuen. Ikerketa lanak egiten genituen Orona, Fagor eta Once enprekin elkarlanean, besteak beste. Garai hartan, paper asko sinatu beharra nuen, baina eskuen mugimendua kontrolaezina denez, neure errubrikarekin diseinatu nuen zigilua. Sei urtez aritu nintzen horretan, baina orain utzita dut, nekatuta bukatu nuen.

Dantza, teknologia berriak eta informatikaz gain, zer beste zaletasun dituzu?

“Geuk erabaki eta hautatu behar dugu zer eta nola egin nahi dugun”

“Bizitza honetan gauza asko gertatu zaizkit, baina barre egiten dut”

Xakean jokatzea izugarri gustatzen zait, eta etxe inguruan dagoen Arretxe tabernan lagunarteko partidak antolatzen ditugu, patxaranaren bueltan. Garai batean, berriz, asko bidaiatzen nuen. Alemaniako kongresu batera bakarrik bidaiatu nuen, hegazkinean. Kuban eta Dominikar Errepublikan ere izana nago, lagun batekin. Espainian ere asko bidatu dut, X Madinako nire proiektuak aurkezteko kongresuetan parte hartzeko.

Zer asmo dituzu aurrera begira?

Laguntza teknologian oinarritutako masterra egiten ari naiz. Eta master bukaerako proiektua aurkeztzen dudanean, ni bezala ezintasunak dituzten pertsonentzat erabilgarriak diren teknologia-aplikazioen inguruko doktoretza egiteko matrikulatuko naiz. Batzuetan, gure-tzat lan egiten duten profesionalak ez dute ulertzen zer behar ditugun. Guk jarrera aktiboa dugu eta, esaterako, orain arte denbora librearen arloan ez dugu izan ahotsik; zentzu horretan ere, guk hautatu eta erabaki behar dugu zer eta nola egin nahi dugun. Bizitza honetan gauza asko gertatu zaizkit, baina txistek balira bezala hartzen ditut eta barre egiten dut. Ez dut horiengatik sufritzen, jarrera baikorra dut oso.✘

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte+
Urrestila bidea, Azpeitia
943 15 00 85

Igerilekuko biosfera

Igerilekuko erabiltzaile bezala, tarteka gauza bitxiekin egiten dut topo bertan. Agian ni izango naiz erraz asaldatzen den horietakoa, edo garbitasuna behar baina gehiago behar duenetakoa. Jarraian, Azpeitiko igerilekuan ikusi ditudan zenbait egoeraren berri emango dizuet, akaso bakarren batekin identifikatuak sentituko zarete, agian, ez zarete nire ikuspegiarekin ados egongo.

Behin baino gehiagotan egin izan dut topo pertsona honekin muskulazio aretoan. Hainbat aparatua erabiltzen ditu, baina gustukoenak bizikleta, eliptika eta ergometroa ditu. Erraza da bera besteen artekin bereiztea: normalean bere inguruan izerdi potzu handi bat egoten da, belarrietan aurikular txiki batzuk izaten ditu, tarteka esfortzuaren esfortzuz oihuren bat egiten du, eta kamiseta azalari itsatsia izaten du, tatuatua bezala. Gelako atean jartzen du derrigorra dela izerdia lehortzeko zerbait eramatea muskulazio gelara, gizon honek izara bat eraman beharko luke. Baina tira, hau ez zait gaizki iruditzen, beldurtzen nauena da, egunen batean bihotza geratuko zaiola bertan. Hala ere, ikusi dut arduradunak ohartu direla egoeraz, eta desfibriladoreak erabiltzen erakusteko ikastaro bat antolatu dutela.

Saunaren beroan, izerdi eta katarroren bat bertan lagatzera joaten naiz tarteka. Beroaren beroaz lasaiturik, egurrezko hamakatxoan etzatea asko gustatzen zait. Baina bada pertsona bat, nire lasaitasunetik aldentzen nauena. Argi jartzen du hainbat karteletan ezin dela larrugorritan ibili saunan, baina ez dio honi askorik axola. Ez naiz ni arropen aldekoa, gehiago naiz gauza natural eta askeen zalea. Koherentzia alde batera utzita, ez zait batere gustatzen nik burua edo aurpegia jarri behar dudan lekuan, bere ipurdi masailak edo harago joanda, bere barrabilak hor egon direla irudikatzea. Biluzik egoten jarraitu behar badu, ekar dezala medikuaren ziurtagiri bat, non esaten duen: kaka egin ostean



|||||||||egoitz arruti|||

|||Norbaiten hankarteko ileek nire aurpegian ibili behar badute, nik aukeratutakoren batenak izatea nahiko nuke

ipurdia zotalarekin garbitzen duela eta bere arrautzetako ilea ez dela inoiz jausten. Behinik behin, norbaiten hankarteko ileek nire aurpegian ibili behar badute, nik aukeratutako norbaitenak izatea nahiko nuke.

Harraskako kontuak

Azken atala, iturriari eta bertako harraskari eskaini nahi nioke. Sarritan bertan, bizarra mozten egoten da jendea, apar zuria eta ile txikiak hor uzten dituzte, apaingarri modura. Behin, gizaseme bat buru guztia apar zuriz zuela ikusi nuen, bertan ari zen zuen ile apurra mozten; hasieran uste izan nuen, garai bateko igeltseroen modura edo sagardotegietan bezala, zapi bat zuela buruan jarrita. Amaitzeko, aste honetan ura edatera joan naiz iturrira, eta han topatu dut harraska goraino urez eta xaboiz beteta, bertan igerian bainujantzi zahar bat zegoela, krisiak noraino eramango ote gaitu.

Akaso, ez naiz ni izango garbitasunaren eredurik egokiena, eta agian gertaera horiek niri bakarrik iruditzen zaizkit kontatzeko modukoak. Baina esateko beharra nuen.*



Txikia maitatzea

Herri txikia da gurea, euskaldunona; komunitate txikia, etxe-girokoa. Horregatik ume-umetatik izan dugu guk ere gauza txikiak maitatzeko gaitasun hori, askok eta askok iluna ikusten duten lekuan argi izpien beroa sentitzekoa. Beti esaten dut euskara izan dela, bere txikian eta ahulean, nire bizitzako maitasunik handiena, eta hori nire inguruko pertsonak ere elikatu dute. Izan ere, Azpeitian gure hizkuntzak baditu baldintzak lasai bizitzeko, osasuntsu.

Euskararen erabilera datuak plazaratu dituzte udalak eta Soziolinguistika Klusterrak. Bertan, ikusi dute Azpeitiko kaleetan, hamar elkarrizketatik zortzi direla euskaraz; hain zuzen, aztertzaileek entzundako solasaldien %81,8. Nola neur dezakegu hori zifra ona edo txarra den? Azpeitian bizi diren lagunen %83,6 dira euskaldunak. Horrek erakusten digu fidelak garela hizkuntza hauta-tzerakotan. Etxetik euskaraz irteten gara, eta kalean, gizarte araua da gure hizkuntzan mintzatzea. Gu euskaraz gara, konplexurik gabe.

Hala ere, euskaraz bizi diren herriak, euskararen arnasmuneak, airez husten ari dira. Ikerketa guztietan nabarmentzen digute udal-erri erdaldunak euskalduntzen ari direla, baina askotan esaten ez digutena da gero eta gutxiago direla euskararen herriak. Gurearen gisakoak dira euskararen etorkizuna berma dezaketeenak, kultura eta haur-jolasetatik at ere ulertzen dugulako euskara.

Asko euskaldun jaio ginen, euskara etxean, eskolan eta lagunartean oparitu ziguten, eta gauza natural bat bezala jaso eta eman dugu. Halere, ez da hori Euskal Herriaren isla. Gure indarra, bizia transmititzea tokatzen zaigu inguruko herritarrei. Horretarako, gure eremutik kanpo ere egin behar genuke lehen hitza beti euskaraz: Zarauzko tabernan, Bilboko dendan edo Iruñeko plazan.

Ezer ez da betiko

Denboraren joanak guztiari aldatzen dio



eneritz albizu


Etorkizunean, nor izango dira euskara zaintzearen eta zabaltzearen arduradunak? Kimu berriak, bada.

forma: pertsona bezala, herri bezala. Zauriak ixten ditu, eta berriak ireki. Modu horretan, Azpeitia ere, eredu den arren, alda daiteke. Horregatik komeni da guztia esatea. Zazpi urtean 4,3 puntu jaitsi da hizkuntzaren erabilera gure herrian. Ez da oso zifra esanguratsua, eta datozen urteetako neurketek berretsi beharko dute joera hori. Dena den, erreleboak kezkatzen nau: 65 urtetik gorako pertsonen artean soilik hazi da erabilera. Gai-nontzeko taldeetan, behera egin du: 5,4 puntu, haurretan; 7,5 puntu, gazteen artean; eta 4,5, helduetan. Etorkizunean, nor izango dira euskara zaintzearen eta zabaltzearen arduradunak? Kimu berriak, bada.

Joera hori orokorra da txoko euskaldunetan, behar adina laguntzen ez digutelako edo ahazten ari garelako txikia maitatzeak sortzen duen sentimendu hori. Agian, etxeko gaztetxoenei ez diegu azaldu ondo euskarak egiten gaituela euskaldun, eta benetan dela berezia zerbait txikiaren eta desberdinaren jabe izatea. Gure hizkuntza maitatzeko gaitasuna ere transmititu behar diegu, hizkuntza berarekin batera. Maitasunik gabe, ezer ez da betiko; eta maitasunarekin ere...



OPARI BONOAK ZELAI PROMOZIOAK




INFORMAZIO GEHIAGO
www.talasoterapiazelai.com

Tel. 943865100
recepcion@talasoterapiazelai.com

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskara ikastea helburu

Sei ikastaro eskaintzen dituzte Azpeitiko Udal Euskaltegian, eta guztira 103 ikaslek eman dute izena. Klaseen %85era joanez gero, ordaindutako matrikula berreskuratuko du ikasleak.  Ainitze Agirrezabala

Hasi berri dituzten sei ikastaroetan guztira 103 ikasle ari dira euskara ikasten. A1 (hasierako erabiltzailea), A2 (oinarrizkoa), B1 (independentea), B2 (aurreratua), C1 (gaitua, EGA) eta C2 (aditua, EGAtik gora) saioetako ikasle kopuru horri udan ikastaro trinkoa egin duten dozena ikasle gehitu behar zaizkio. Matrikula epea itxita egon arren, ikasleak martxan dagoen talderen batean sartzeko adinako maila izanez gero, urtean zehar edozein unetan sartzeko aukera du.

Azpeitiko Udal Euskaltegiko euskara ikasleek diru-laguntzak dituzte. Langabetuek eta ikasleek ikastaroa doan egiteko aukera dute, betiere ikastaroaren amaieran %85eko asistentzia erreala izanda.

Langabetuak ez izan arren, Azpeitian erroldatuta egonez gero, horiek ere ikastaroa doan egiteko aukera dute. Lan egiten duten ikasle horiek lehendabizi ordaindu egin behar dute matrikula, baina %85eko asistentzia erreala lortuz gero, ordaindutakoa berreskuratuko lukete.

Bestalde, diru sarrera txikiak dituzten langileek ere matrikularen erdia ordainduta ikastaroa egiteko aukera izango dute. Eta, asistentziaren baldintza betez gero, ordaindutakoa berreskuratu ahal dute.

Etxe beretik kide bat baino gehiagok izena eman ez gero, batek matrikula osoa ordainduko du eta besteak erdia. Gainera, biek eska dezakete asistentzia edo diru sarreren araberako beka.*



Aurten, irailean, euskara ikasten hasi den taldea. A1 mailako hasierako erabiltzaileak.  Azpeitiko Udal Euskaltegia



Joseba Albizu

ESANA DAGO

“Madril-Lisboa zen niretzat denboraldiko azken proba garrantzitsua”

JOSEBA ALBIZU
txirrindularia

“Ezin da euskal kulturaz hitz egin Euskal Herriak nozitzen duen botere propio baten gabezia kontuan hartu gabe, diagnostiko guztien okerraren abiapuntu izan bailiteke”

“Gure herriak ez du bere adierazpen kulturalak legitimatzeko tresnarik”

PAKO ARISTI
idazlea

PROXIMITY  AIZPURU

Tel.: 943 81 23 59

aizpuru@aizpuru.net

Fax.: 943 81 22 81

www.aizpuru.net

Arretxe 17, 20730 AZPEITIA

Zure autoak behar duen edozertarako!

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea. 35 behea

20730 AZPEITIA - Urut.: 943 81 57 81


I love sega-poto

Oraingo kolaborazio honetan ere dakitenek diotenarekin ez nator bat. Azken finean, egia izango da kontrax bat naizela (dakitenekin bat nator ezaugarri hori azpeitiar peto orok ADNan serietik dakarrela diotenean, alegia).

Sega-potoa, hau da, telefono mugikorra, seme-alabei zenbat eta beranduago eman askoz hobee omen da. Ez jauna eta ez andrea. Arrazoia ia seguru dakitenena izango da baina nik kontrakoa uste dut. Erabilera kontsumista albo batera utzita, haurrak gaur egun

ezinbestean mobilaren inguruan bizi behar du. Gaur ia dena eta bihar dena, telefono mugikorrek jotako doinuekin dantzatu beharko dugu. Berriari diogun beldurra ulergaitza egiten zait. Noski, arriskuak dituela... baina abantailak... zenbat abantaila.

Haurrak teknologia berrien erabileran hazi eta hezi beharko ditugu, haietaz beldurtu eta gure garaiko sorgin, mamu eta deabruzat hartu beharrean. Teknologia berriak magiarekin lotuko nituzke nik. Orain gutxira arte, burutik pasatu ere egiten ez zitzaizkigun zenbat



txetxu urbieta

gauza egiteko aukera eman digu makila magikoaren tamaina berekoa den tramankulu alu horrek. Mundu berri baterako atea ireki dizkigu edo aurrez aurre geneukan mundu ezezaguna gerturatu eta esku-eskura utzi digu. Zoragarria. Badakizue zer, uste dut berriari beldurra diogunean hasten garela zahartzen.

Eman beldurrik gabe sega-potoa haurrei. Baina nola erabili behar den erakutsi. Segazorrotza beti baita arriskutsua, baina kamutsa are arriskutsuagoa.*

IKUSTEKOA!



▲LO-KULUXKARAKO MAKINA.

Argazkiko katuari siestarako leku ezin aproposagoa iruditu zitzaion auto urdinaren aurreko eta eskubialdeko gurpilaren eta karrozeriaren arteko tartea. Gozo-gozo ikusten zen, lo-kuluxkarako prest eta bertatik mugitzeko inongo intentziorik gabe. Motorraren zarata izango ote zuen iratzargailu. 🐱🐱 Mailo Oiarzabal.*

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



maite garmendia



Bota lasai!

UZTARRIA. Hala eskatu zieten galdetzaileek kalean topatu eta hitz egiteko tenorean zeudenei. Gehienek Azpeitian nahiko jai badela zioten. Kanpoan ere fama hori dugu. Kultur ekitaldi ere ondo jantzita dago herria. Ba ote beste herriren bat hainbeste ekitaldi, kontzertu, hitzaldi... dituenik? Donostiari eman diote europarrek 'kultur hiri' izendapena, baina nire ustez Azpeitiari eman beharko liokete. Ezta?



Idazleak Azpeitian

'33 EZKIL'. A zer notizi ona. Miren Gorrotategik '33 ezkil' nobela idatzi du. Azpeitian dugun idazle multzorako beste bat (eta emakumea, gainera; zerrenda motz zebilen eta emakumez). Urtean zehar liburutegian Pako Aristiren gidaritzapean egiten den literatur solasaldirako aproposa. Nik irakurriko dinat. Zorionak Miren. Zorionak Azpeitia.



Plazatarrak kalera

LUDOTEKA KALEAN. Espazio publikoak jolaserako berreskuratzeko helburu horrekin, herriko ludotekak kalera irtengo dira hilero ostiral arratsalde batez. Gurasoak ere inplikatu nahi dituzte horiek ere jolasean jarriz, udaberrian izan zuten arrakasta udazkenean ere lortu

asmoz. Ai! Ze ondo ibil-tzen ginen gu txikitari jo ta ke, kalearen jabe. Kale dena zen guretzat jolastoki. Eleizkalekoentzat, behintzat. Kaleak ere bizitzeko behar duelako, kaleak oinezkoentzat izan behar dutelako, animo gazteak! Okupatu kaleak!*

INKESTA

Ehiza: ALde,
kontra edo berdin
zaizu?

 Ainitze Agirrezabala

JEXUX OTAMENDI

60 urte



**“Ez naiz ehiztari
itsua, baina joaten
naiz tarteka
oilagorretara eta
usotara. Ehizari errespetua
galdu zaiola uste dut, ordea. Uso
banda postura sartu aurretik
hasten dira batzuk tiroka”.**

ANA COLINAS

57 urte



**“Ez naiz erradikal
horietakoa, baina
animaliak horrela
hiltzearen kontra**

**nago; plater-tiroketa egin
dezatela eta kito. Haserretuko
zait suhia, ehiztari amorratua
da-eta. Tarteka ekartzen du
ehiza, baina nik ez dut jaten”.**

AMAIA GOENAGA

43 urte



**“Ehiztaria naiz.
Gaztetan aitarekin
joaten nintzen
ehizera; senarra
ere ehiztaria da, eta semea eta
hirurok joaten gara orain.
Otzaurtera, Etumetara... Usotara
eta birigarroetara joaten gara.
Ehizatutakoa prestatzen dut,
baina jatea ez dut atsegin”.**

ARITZ ALDAI

41 urte



**“Kartutxoak jaso
eta mendia garbi
uzten badute,
bakoitza libre da**

**ehizera joateko. Neu ez naiz
ehiztaria, eta ehizakia jateak ere
ez dit graziarik egiten”.**

Magia ala trikimailua?

Magiak hartu zituen Azpeitiko kaleak urriaren 22an. Haurren, gazteen, helduen nahiz helduagoen arrazoia kuitu zuten kalean magia egiten aritu ziren lau magoek. Bai, egia da. Egun hartako egitarauak ekitaldi gehiago utzi zituen Azpeitian, baina ni eta nire inguruan ibili ziren guztiak benetan aho bete hortz utzi gintuena bertatik betarako magia hura izan zen.


Egia esan behar bada, eguna iritsi aurretik ez nuen magia gozatzera kalera irteteko ilusio eta asmo berezirik. Ez al da ba magia haurren kontua? Disneyko filmen aldekoa izatea zaharkituta dago gaur egun, bakoitzak barnean gorde behar izaten duen sekretuxoa da hori. Magia ez da existitzen, ondotxo dakigu hori. “Hori trikimailua besterik ez da”, esan ohi dugu. Badaezpada, gainera, trikimailua hitza eta besterik hori ondo azpimarratuta, ez dezatela pentsa horrelako txikieriek gu harrizten gaituztenik...



■■■■■■■■■■ Eider bereziartua ■■■■■■■■■■

Baina, azkenean, kalera irten nintzen. Ni eta herriko beste dozenaka pertsona. Eta han topatu ginen guztiok aurrez aurre magiarekin. Bai, magiarekin. Haurrak zoriontsu ikusi nituen, helduagoak sinesten ez dugun hori benetakoa dela ikusi zutelako. Helduenean, gauza asko ikusi dituztela-eta, irribarre egiten zuten egun haren magia gozatzu, besterik gabe. Eta, gainontzekook? Nola sentitu zenuen magia? Inguruan asko ziren “trikimailua besterik” horrekin galderari erantzun nahi ziotenak. Baina, ezin. Ez baitzen trikimailua BESTERIK. Bestalde, baziren magia existituko ote den barruari behin eta berriz galdetzen ziotenak: “Nire aurrean egin du”, “nola egin du?”, “ezinezkoa da!”, “magia ote da?”.

Bakoitzak jakingo du egun hartan zer sentitu edo sinetsi zuen. Argi gelditu dena da magia baduela tokia gure herrian, gure kaleetan, gure bizitzetan eta, zergatik ez, gure bihotzetan. ✨

**galdetzen hasita, zer iruditzen trafiko
istripuak gutxitzeko erreziLgo
egitasmoa herrira ekartzea?**  **Uztarria**

Nire urteurrena

Santo Tomas eguna nire urteurrena da. Dagoeneko bi urte. Gogoan dut zeinen urduri nengoen aurreneko egun hartan. Gustuko izango naute? Uler-tuko dut esaten dutena? Ulertuko naute beraiek? Baina hobe hasiera kontatzen badizuet. Dena gonbidapen batekin hasi zen. Ordurako urte eta erdi neraman Azpeitian bizitzen, eta egun batean Montse lagunak esan zidan neska batek ezagutu egin nahi ninduela; egun hartan bertan egin genuen topo elkarrekin, eta nire bizitza goitik behera aldatu zen handik aurrera Azpeitian. Olatz eta Mikelek euren koadrilarekin geratzeko gonbita luzatu zidaten, eta elkarri telefono zenbakia eman genion. Zintzoa izanda, ez nuen espero deituko zidatenik, baina hurrengo egunean bertan deitu zidaten. Larunbat hartan santotomasak ziren, eta egun hartan hasi nuen eskuzabal hartu ninduen herriko kuadrilla eder batekin maitasun-harremana. Dagoeneko nire herria ere baden Azpeitiko jendeak duen kalitatea eza-




■■■■■■■■■■ Linette Montalvo ■■■■■■■■■■

gutzeko aukera eman zidan. Esku-zabal hartze horrek erakusten du posible dela integrazioa, nahiz eta horretarako erosotasuna alde batera utzi beharra izan askotan, nahiz eta besteen aurrean askotan ahulago sentitua; baina horrela eta ez bestela lor daiteke elkarbizitza. Badakit kanpotik iristen diren guztiak ez dutela nahikoa ahalegin egiten integrazeko eta hizkuntza ikasteko, baina benetan integratu nahi dutenei laguntzeko zenbateraino gaude prest? Askotan harritu egiten naiz kuadrillakoak nire euskara ulertzen zenbat ahalegintzen diren ikusita. (Une honetan eurek entzuten ez gaituztela aprobetxatuz: uste dut banaizela nor eurentzat, eta edozer tarako prest daudela ni euskalduntzearen).

Prozesu honetan guztian barre egin dugu, negar, parrandak, aholkuak... Nire familia da hemen, eta hain nago eskertua... Horrenbestez, nire aurreneko artikulua baliatu nahi dut euren bizitzak goratzeko. Aupa munduko koadrila ederrena! ✨

HAU HOLAXEENK



Huntzak lotuta

Hurritz, oraindik 10 kilo besterik ez zara. Poliki ari zara hazten. Ez zara lehen hila-beteetako arropetan sartzen. Pentsatzekoa da zure handitze horretan zerikusia izango dutela fruta potoek, berdura pureek eta, noski, amak ematen dizun esneak. Eta bizitzea tokatuko zaizun egun bakoitzaren hautsa itsatsiko zaizula hezurretan. Horrela joango zara luzatuz apurka-apurka, ilargi aldi bakoitzak tiraka lagunduta.

Baina, txikia zaitugu oraindik. Lilura sortzeko adina txiki. Dena baitzara gertakizun, dena etorkizun. Hamar kilo itxaropen.

Agertuko da iragana, ordea, zure etorkizuneari. Beti izaten da berdina: atzetik harra-patzen gaitu, itsumustuan, lapur baten gisan. Joandako garaietatik, beste norbaitek bizi izandako denboretatik, iraganaren aihenak etortzen dira eta huntzak bezala lotzen gaituzte. Orkatiletan eta eskuturretan korapilatzen zaizkigu lehenik, bularra biltzen digute gero.

Begira niri. Hemen naukazu duela laurogei urte gertatu zen guda bati ihes egin ezinik. Hor nabilkizu *Gudarostea* sortzen Loiolara pasieran etortzen garen bakoitzean, gazte

berrien kuraiaz harro. Hemen naukazu behi buru, hildako zaldi, nire begiek *Guernica*-rekin topo egiten duten bakoitzean. Hortxe naukazu pikatxoiekin harri txikitzen auskalo nongo itsasorik gabeko hondartzan attitte Joxe orotzen naizen aldiro.

Hurritz, etorriko zaizu zuri ere huntza, lotuko zaitu horma zaharren batetara. Lagunduko nizuke askatzen izan zaitezene beti etorkizun, baina zaila izango da. Zuri laguntzeko nire eskuak libratu behar lehenik. Eta ikusiak ikusi, laster Gerra Zibilak eztarria bera ere ez ote didan estutuko beldur naiz.*



xabi borda

Erotikan Plax!

Plazako Aranburu farmaziako Itziar Agirre botikariari egokitu zaio hil honetan 'Erotikan PLax!' ataleko sexu-galderei erantzutea. **Zure lanbidean, zerk ematen dizu plazerra?**

Bezera ondo zaintzeak. **Farmaziako zer produktuk jartzen gaitu puntuan? Zerk lagundu dezake?**

Argi eta garbi Ibuprofeno 600ek. Festaren erregea da! Kar, kar, kar. **Kondo gutxi saltzen omen da Azepeitan, egia da?**

Bai, egia da. Ez dakit egoera Azepeitiakoa den edo orokorra. Gaur egun, dagoen informazioarekin, egia esan ez dakigu benetako arrazoia zer izan ote daitekeen. **Hurrengo eguneko pildoraz zer esan dezakezu?**

Askotan ez zaio erabilpen ona ematen, antikonzeptibo bezala erabiltzen baita. **Erotismoarekin lotutako anekdota edo xeblekeriaren bat?**

Behin aitona bat preserbatibo bakarria behar zuela esanez etorri zitzaizun. Esan genion kaxan bat baino gehiago etortzen zirela, baina ez, bakarria nahi zuen. **Sexualitateaz gomendiorik emango zenuke?**

ITZIAR AGIRRE

Jai. 1959ko martxoak 23.
Herria. Azepeitia.
Bizitokia. Azepeitia.
Lanbidea. Farmazialaria.



Nik neuk gomendiorik ez, baina antikonzeptiboan inguruko informazioa zabaltzen jarraitzea beharrezkoa ikusten dut. **Janari erotiko bat?**

Txokolate zuria. **Usain bat?**

'Eau de soin la prairie' perfumea. **Abesti sentsual bat?**

Joe Cockerren 'You can leave your hut on'.

Gustuko momentu bat? Bezeraok irribartsu eta 'egunon polittak' bezalako piropo atseginekin etortzen zaizkigunean. Momentu polita izaten da.*

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, azaroan: hilaren 2an eta 3oan (16:00-19:00) eta 19an (10:00-13:00).





▲ AMETSA BETETA.

Nepal bisitatzeko gogoia betidanik zuen, eta ametsa bete du Arregik. Lan-kontuak medio, kuadrillan inor ez zitzaion animatu bidaia egitera, baina Mendiak eta Herriak elkartearekin harremanetan jarri eta hamar laguneko taldeak trekinga egin du herrialde hartan. Irailaren 23an joan eta urriaren 16an itzuli ziren etxera.

Bidaia solidarioa

Iñaki Arregik 24 eguneko trekinga egin du Nepalen. Hemendik hara eramandako 100 kilo arropa hango herritarren artean banatzen lagundu du. 📌 A. Agirrezabala



▲ AIREPORTUAN, ARROPA GARRAIATZEN.

Himalaiara egindako trekingaren helburuetako bat hango herritarrentzat arropa eramatea izan da. Guztira, 100 kilo arropa eraman dute, eta Nepalgo hamar herritan egin dituzte geldialdiak, bakoitzean haur, gazte nahiz helduentzat 10 kilo arropa banatzeko.

► PUMORI.

Joan den hilean, urriaren 17an, bete ziren hamabost urte Beñat Arrue azpeitiarra eta beste lau mendizale Pumorin hil zirela. Argazkian, Iñaki Arregi atzekaldean Pumori duela ageri da. Pumori bertatik bertara ikusi, eta Arrue han hil zela eta haren gorpua han dagoela jakiteak "zirrara eragin" ziola adierazi du.





▲ MONASTERIOAN.

Ehunka tibetar umek egiten dituzte prestakuntza ikastaroak Nepalgo monasterioetan, monjeak izateko. Argazkian, Arregi bost mutil kozkorrekin, 'Gora Euskadi' oihukatzen.

▼ HILETA.

Hildako amari azken agurra ematen zion familiaren hileta ere ikusi zuten. "Manta artean bildu, hankak eta aurpegia urarekin garbitu, eta su eman ondoren ibaiaren ur-emariak eramaten du gorpua", kontatu du Arregik.



▼ BIDEA ZABALTZEN.

Egoera negargarrian zeuden errepideetan ibili dira, eta aurrera egin ahal izateko autobusetik jaitsi eta harriak kentzen ere aritu behar izan dute.



▲ ZAMAKETARIAK ETA SHERPAK.

100 kilo arropa eta hamar lagun materiala garraiatzeko bost zamaketarik lagundu diete trekingean, eta bi sherpa izan dituzte gidari eta laguntzaile espedizioan.



▲ LAGUN ONAK MB-REN PEGATINA.

Nepalgo hainbat herritarrek beraien etxeak mendizaleak hartzeko aterpetxe moduan prestatuta dituzte. Hango bi aterpetxetan Lagun Onak MB-ren pegatinak aurkitu zituen.



▲ REALAREN NIKIA.

Zamaketari batekin "harreman estua" egin zuen Arregik, eta nikia eman zion opari.

▼ JOSTAILUAK ETA MARGOAK.

Arropaz gain, hainbat jostailu eraman zuen Arregik, hango umeen artean banatzeko. Argazkian, Mattin eta Jon azpeitiarren bizikleta neskato bati ematen.



▲ TALDEA GAILURREAN.

Mendiak eta Herriak taldeko kideak ikurriña eskuetan dutela, Kala Patthar (5.644 metro) mendiaren gailurrean. Iñaki Arregi bi behatzekin garaipenaren keinua egiten ari dena da.



▼ UMEEN BEGIRADAK.

Mendian baino gehiago gozatu du Nepalgo herrietan egindako egonaldietan Arregik. "Hango umeen begiradak jasotzeko argazki asko atera" dituela dio. Irudian, Arregi Nepalgo bi umetxorekin.*

Garatzea falta

Loiolako Inaziok 1522an Manresara egindako bidea egin dute hainbat azpeitiarrek. Inaziotar Bideak, ordea, “hobetzeko asko” duela diote.  Ainitze Agirrezabala

Loiolako Inaziok, aldaketa espirituala izan ondoren, Azpeititik Manresara (Herrialde Katalanak) erromesaldia hasi zuten 1522. urtean. Santuak berak idatzitako oharretan oinarrituta, Jose Luis Iriberrri Diez jesuita katalanak 2011n ekin zion Inaziotar Bidea sortzeari eta sustatzeari. Inazioren Loiolako jaiotetxetik abiatu eta Manresako

San Inazio kobarainoko ibilbide luzea eta gogorra da; gutxi gorabehera 675 kilometro ditu, eta bost autonomia erkidego –EAE, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta Katalunia– zeharkatzen ditu.

Ibilbide berria izanik, oraindik ez du indarririk hartu, eta ez da ezaguna ibiltarien artean: “Azpiegitura aldetik urri samar dago, eta asko

dago egiteko”. Hala adierazi dute Loiolako Basilikatik Manresarako bidea egin duten hainbat azpeitiarrek. Iñigo Medinillak (Azpeitia, 1975), Agustin Lizarralde (Aizarnazabal, 1969), Juanjo Azkuek (Azpeitia, 1950) eta Maria Jesus Etxabek (Azkoitia, 1953) oinez egin dute Inaziotar Bidea; Iñaki Portillak (Azpeitia, 1952), Jose Antonio Larrañagak (Az-

||| INAZIOTAR BIDEA SUSTATZEKO BIDE-ORRIA |||

Loiolatik atera eta Kataluniako Manresa hirira doan Inaziotar Bidea “osatu eta sektore turistikoa eta ekonomikoa sustatzeko” asmoz, hainbat eragile publiko eta pribatu plano desberdinetan ari dira lanean, Iraurgi Berritzeneko Jesus Mugikak azaldu duenez.

SEINALEZTAPENA.

Loiola-Laguardia. Euskal Herriko bi probintzia –Gipuzkoa eta Araba– eta sei eskualde zeharkatzen ditu Inaziotar Bideak: Urola Garaia, Urola Erdia, Debagoiena, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa. Basquetourreko eta sei eskualdeetako ordezkariak osatutako lan-taldeak etapa hasieretan eta bukaeretan argibide-panelak

jarri dituzte; bidegurutzeetan geziak; eta ibilbidean seinale zuri-gorriak. Hala, Loiola-Laguardiako zazpi etapak homologatu dituzte.

Laguardia-Manresa. Loiolatik Kataluniako Manresara, bost autonomia erkidego zeharkatu behar dira, eta zati askotan ez dago seinalerik. Mujikaren esanetan, “erkidego bakoitzak bere azpiegitura eta antolakuntza ditu, eta Inaziotar Bidearen gaiari bakoitzak bere garrantzia ematen dio”. Halako arazoei aterabidea emateko, erkidego bakoitzeko turismo zuzendaritzak mahai batean antolatuta dira.

PROMOZIOA.

Eskuorriak. Inaziotar Bidearen Euskal Herriko ibilbidea jaso-

tzen duen mapa argitaratu dute, etapaz etapa argibideak –distantziak, argazkiak, desnibelak– emateko. Mujikak dio helburua Loiolatik Manresarainoko ibilbide guztiaren mapa argitaratzea dela, datorren urteko Madrilgo Fitur azokan aurkezteko.

Gida. Erromesentzat “oso baliagarria” den informazioa jasotzen duen Inaziotar Bidearen gida ere salgai dago, Sua Edizioak kaleratuta. Zentzu horretan, “eragile pribatuek ibilbidean inbertsioak –jatetxeak, aterpetxeak...– egingo badituzte, lehenago seinaleztapenaren eta promozioaren bidez, erromesen joan-etorria indartu” behar dela dio Iraurgi Berritzen Garapen Agentziako teknikariak.

ESKAINITZA PROPIOA.

o. etapa. Herriko ekonomian, eta, batez ere, 3. sektorean eragiteko, “turistak eta bisitariak herriratzean dago gakoa, ahal den eta denbora gehiena bertan pasatzeko ekimenak eskainiz”. Une honetan, bisitari gehien ekartzen dituen Inaziotar Bidea azpeitiartzeko apustua lantzen ari dira Azpeitiko Udala eta Iraurgi Berritzen. Azpeitia Experience estrategia eta marka propioaren baitan, 21 kilometroko ibilbidea duen Inaziotar Bidearen 0. etapa jarri dute abian, eta epe motzean beste bi osatzea da helburua. Loiolako Inazioren bizitzan garrantzitsuak izan ziren herriguneko hainbat leku bisitatzea da turismoa indartzeko eman nahi duten pausoa.✘



Paulo Azkue, Iñigo Medinilla, Garikoitz Olazabal, Joseba Olazabal, Iñaki Portilla, Juanjo Azkue, Maria Jesus Etxabe eta Agustin Lizarralde, Loiolako basilikaren atarian. |||Maialen Etxaniz

|||DATUAK|||||

675 kilometro. Loiolatik Kataluniako Manresara doan Inaziotar Bideak distantzia hori du, eta bost autonomia erkidego zeharkatu behar dira, 30 bat egunean.

450 pertsona. Aurten, urtarriletik urrira, Inaziotar Bidea egitera ia 500 lagun atera dira Loiolatik, hango turismo bulegoak jasotako datuen arabera. 450 ibiltari horietatik 300 bakarrik atera dira, eta gainontzeko 150 taldean.

225 lagun. Urtea hasi zenetik, Inaziotar Bidearen inguruan informazioa eskatzera Loiolako Turismo Bulegora joandako pertsona kopurua da hori.

1.000 erromes. 2011tik 2015era, Inaziotar Bidea egitera Loiolatik atera direnen kopurua da. Haietatik %64 gizonak dira, eta %36 emakumeak. 1.000 horietatik gehiengoaz iaz atera zen.

80 urtekoa. Loiolatik abiatuta Inaziotar Bidea egin duen erromes zaharrena gizon alemaniar bat da. 2012an egin zuen ibilbide osoa oinez, soinean telefono mugikorrik eta GPSrik gabe.

1970 .urtea. Santiago Bidearen hastapeneko urtean, 150 erromesek egin zuten bidea. Gaur egun, urtean 200.000 pertsonak egiten dute. Beraz, zenbakiei begiratuta esan daiteke Inaziotar Bidea bera indartsuago hasi dela, nahiz eta azpiegiturei dagokienez oraindik ere asko dagoen egiteko.

peitia, 1957), Angel Mendigurenek (Azpeitia, 1951), Paulo Azkuek (Azpeitia, 1977) eta Joseba Olazabal (Azpeitia, 1966) eta Garikoitz Olazabal (Azpeitia, 2001) osaba-ilobek, berri, bizikletaz.

Medinilla, bere bakardadean

Bakarrik egin zuen Inaziotar Bidea Iñigo Medinillak, duela hiru urte. "27 egun behar izan

nituen Loiolatik Manresara iristeko. Bakarrik egiteko ibilbide gogorra da. Gipuzkoako eta Arabako zatiatan, batez ere, etapa gogorrak daude mendiak igo behar direlako, baina, oro har, esperientzia oso ona izan da. Bidean ez duzu ia inor topatzen, eta hainbeste denbora bakarrik igarotzea barne-hausnarketarako oso ondo etorri zitzaidan. Kuaderno batean egunerokoa ere idatzi nuen”.

Santiago Bidea ere egina du duela urte batzuk, eta “zerikusirik ez” dutela dio: “Inaziotar Bidea askoz ere serioagoa da, mistikoa goa, baina azpiegitura aldetik oso eskas dago, prestatu gabe. Bidean aterpetxe gutxi dago, eta behin baino gehiagotan pasatu nuen gaua aire zabalean: Arantzazun frontoian egin nuen lo; Araian eliz atarian, eta Monegroetan, basamortuan, izarpean”. Santiago Bideko jatetxeetan erromesentzat menu bereziak dituztela ere gaineratu du, baina Inaziotar Bidean halako eskaintzarik ez dago. Seinaleztapenari dagokionez, berriz, ibilbidean zehar “marka eta argibide oso gutxi” daude Medinillaren esanetan. “Euskal Herrian eta Katalunian ezagutzen dute Inaziotar Bidea, baina Errioxan eta Zaragozan ez, eta pare bat aldiz, jendeak gaizki bideratuta, kilometro piloa egin nuen alfer-alferrik”. Ibiltzea izugarri atsegin du, eta aurtengo udan Kataluniar zatia egin du berriro, Lleida eta Manresa artekoa, eta seialeztapena duela hiru urtetik “asko hobetu” dela dio.

Bitxikeria bezala kontatu du, “fededuna izanik”, Montserratren erromes-txartela aurkeztuta “apaizaren bedeinkapena jasota” itzuli zela etxera.

Aguraingo taldearekin

Inaziotar Bidearen lehen bi etapak egiteko irteerak antolatu zituen Loiolako Turismo Bulegoak iazko azaroan, eta orduan ezagutu zuten elkar Juanjo Azpiazu eta Maria Jesus Etxabe senar-emazteek eta Agustin Lizarralde. Irteera haietan hiru goierritarrekin harremana egin zutela azaldu du Lizarralde, eta “etapa gehiago egiteko gogoz” geratu zirela. Orduan, Inaziotar Bidea etapaz etapa egiten ari den Aguraingo 60 laguneko Zazpi Oreitia taldearen berri izan zuten, eta, geroztik, haiekin jarraitu dute bidea egiten. “Hilero etapa bat-edo egiten dugu, eta, guztira, bederatzia egin ditugu. Etapa dugun egunean, Agurainera kotxez joaten gara. Han, taldearekin elkartu eta autobusak etapa hasi behar dugun puntura eramaten gaitu. Gero, etapa bukaeran, zain izaten dugu autobusa, eta bakoitzak etxetik eramandakoa guztion artean banatu



eta mokadutxoak egiten dugu”. Lizarraldek aurreratu duenez, Aguraingo taldearen asmoa da “azken lau etapak egitea; izan ere, tarteko horiek, Monegroak-eta, gogorrak dira udazken-neguan egiteko”.

Pasadizo bat baino gehiago dituztela gaineratu du Lizarralde: “Proiektua berria izanik, bidean ez dugu ibiltari asko topatu. Horrez gain, herri askotan ez dute arrastorik Inaziotar Bideaz, eta Loiolako Inazio nor zen eta hark bidea nondik egin zuen geuk erakutsi diegu bat baino gehiagori. Ibilbidean zehar marka zuri-gorriak sasiak-edo tapatuta badi-tu, berriz, garbitu egiten ditugu”.

Aguraingo taldeak “besoak zabalik” hartu izana eskertu nahi dute azpeitiarrek. “Jende oso jatorra ezagutzeaz gain, paraje ederrez gozatu ahal izan dugu”, dio Etxabek. Lizarralde oraindik ere hunkitu egiten da Euskal Herriko azken etapa bukatuta, Lapuebla de Labarcan, 60 laguneko taldeak *San Inaziotar martxa* kantatu zuela gogoraratzear. “Ikargaria izan zen. Ni fededuna naiz, Loiolako Iñigoren jarraitzailea, eta gure helburua da Manresako Iñigoren koba zapaltzea”.

Harrera, Manresan

Harkaitza soziedadeko lagunak dira Portilla, Larrañaga eta Mendiguren. “Bizikletaz irteeraren bat egiteko berotu ginen iaz”, adierazi du Portillak. “Santiago Bidea lehendik egina dugu, eta Azpeitiko Udaleko Turismo zinegotzi izan nintzenean Inaziotar Bidearen gaia gertutik jarraitu nuenez, huraxe egitea erabaki genuen”. Iazko ekainean, astebetean egin zuten Loiolatik atera eta Manresarako bidea, egunean batez beste 100 kilometro eginda. “Larrañagak oinezko bidetik egin nahi zuen, Brinkolatik Urbiara igota, baina handik ez dago bizikletaz igotzerik, egundoko astakeria da! Hasi Azpeititik eta Lizarraraino, Des-karga eta Gesaltza Añana zatiak kenduta, bigorritik egin genuen”, dio Portillak.

1. Agustin Lizarralde, Juanjo Azpiazu eta Maria Jesus Etxabe, Logroñoako San Inaziotar Bidearen eliza atarian. **2.** Iñaki Portilla, Verduko (Katalunia) erromesen aterpetxearen atarian. **3.** Iñaki Portilla, Angel Mendiguren eta Jose Antonio Larrañaga, Manresako alkate Valentzi Junyentekin; hango udalean egin zioten harrerako irudia. **4.** Paulo Azkue eta Joseba Olazabal, Montserrateko (Katalunia) jatetxe baten atarian. Bakoitzak bizikleta bana eramane zuten, eta haietako bati karroa lotu zioten, argazkian ikus daitekeenez.



Loiolatik abiatuta Kataluniako Manresarako ibilbidea irudikatzen duen mapa. ||||| **Inaziotar Bidea**

Alabaina, bidean “gabezia guztiak” aurkitu zituztela dio Larrañagak. “Ibilbidea ez dago ondo seinaleztatuta; ez dago azpiegiturarik jateko, lo egiteko... Manresan egundoko debozioa diote Inaziori, eta harekin lotura duten hogeitik gora gunee daude: San Inazioaren Unibertsitatea, koba... Zentzu horretan, Katalunian inbertsio handia egin dute Lerida arteko bidea sustatzeko, baina, gainontzean, lan asko dago egiteko. Zaragoza eta Monegro zatian, esaterako, egundoko hutsunea dago, konejua besterik ez dago. Santiago Bideak beste maila bat du”. Portillaren esanetan, bideko taberna eta jatetxe bat baino gehiagotako nagusiek “agertu zieten Inaziotar Bidean sartzeko interesan, eta haiei Iraurgi Berriztenekin harremanetan jartzeko kontaktua eman nien. Saiakeraren bat egin beharra dago inbertsioak egin eta ibilbideak indarra hartzeko”. Seinaleztapen txarra medio, nondik-nora hartu jakin ez, eta pare bat aldiz elkarrekin haserretu zirela esan du Portillak: “Zaragoza inguruan galdu egin ginen, eta Guardia Zibilak eskoltatuta eraman gintuen”.

Manresara iristean, udaletxean harrera

||| “Inaziotar Bidea askoz ere serioagoa da, mistikoagoa, baina azpiegitura aldetik oso eskas dago, prestatu gabe”

IÑIGO MEDINILLA

Oinez egin du Inaziotar Bidea

egin zieten azpeitiarrei. Izan ere, Inaziotar Bidea sustatzeko Azpeitiko eta Manresako udalek egin zituzten bileretan ezagutu zuten elkar Portillak eta hango alkate Valentz Junientek. “Oroigarri bana eman ziguten, eta hango upategi batera eraman gintuzten”.

Sasartean, bizikletekin

Kirolzaletasunak bultzatuta egin zuten Inaziotar Bidea Joseba Olazabalek eta Paulo Azkuek 2013an. “San Inazioaren herrikideak izanik erabaki genuen Inaziotar Bidea egitea, eta ez Santiagokoa; baina ez fededunak garelako”, dio Olazabalek. Bizikleta bana, eta haietako bati trasteak eramateko karroa lotuta, Loiolan atera eta oinezko bidetik igo ziren Urbiara: “Hango aterpetxeko guardia atera zitzaigun nora arraio gindoazen eta zoratuta geunden esanez. Handik Araiara zaindariak aholkatutako bidetik jaitsi ginen; bide hartatik jaisten azkena San Inazio bera izango zen, eta hurrenak gu. Dena sasiak janda zegoen, eta ahuntzen pare bizikletak bizkarrean hartuta egin genuen aurrera. Gaua basoan pasatu behar ote genuen, beldurtu zen Paulo”.

||| “Saiakeraren bat egin beharra dago inbertsioak egin eta Inaziotar Bideak indarra hartzeko”

IÑAKI PORTILLA

Bizikletaz egin du bidea

Nahikoa komeria pasatu zuten Loiolatik Manresara iristeko bidean igarotako astebeatean: “09:00etarako atera eta 21:00ak arte, bizikletaren gainean pasatzen genuen eguna. Esperientzia gogorra baina ederra izan da, aldi berean” adierazi du Azkuek. Olazabalen esanetan, ordea, “Santiago Bidearekin alderatuta, Inaziotar Bidean dagoen azpiegitura falta izugarria da. Bardea berrogeitaka gradurekin zeharkatu genuen, eta bidean ez dago ezer ere. Herri txiki horietan, abuztuan, 19:00ak arte janari denda guztiak itxita izaten dira, eta alde horretatik arazoak izan ditzakezu. Zentzu horretan, Matxinbenta bezalako herri txiki horietan erromesak hartzeko azpiegitura egokiak jarri gero, adibidez sei litera eta menua, diru-iturria litzateke, eta guztientzat aberasgarria”.

Egunean 100 kilometro egiten zituzten, baina Azkueren esanetan, “bideko seinaleztapena hain da txarra, egunero beste 30 bat kilometro noraezean egiten genituen, galdu-ta. Inaziotar Bideak oraindik ez du apenas indarrik, jendeak ere ez du ezagutzen, eta hiriburuetatik irten eta berriz ibilbideari heltzea izugarri kostatzen zitzaigun. Hau –Olazabal–egoskorra delako, nigatik balitz Zaragozan trena hartu eta etxera bueltatuko ginen”.

lazo abuztuan, Olazabalek bigarren aldiz ekin zion Inazioaren bideari, Garikoitz ilobarekin. “Helburua Manresara iristea zen, baina ez zigun astirik eman; Zaragozaraino heldu ginen. Ilobak libre duenean bukatzekotan gara. Inaziotar Bidea zazpi egunetan egitea gogorra da oso, baina patxadaz hartuz gero, umeekin egiteko modukoa da”.

Harria ez da eten

Azpeitiko talderik ez da izango aurten Euskal Antzerki Topaketetan, baina ez dira gutxi Soreasuko oholtza zapalduko duten azpeitiarrak. ✍️📷 Mailo Oiarzabal

Zuhaitzetan gorritu eta lurrean alfonbrak osatzen dituzten hosto eroriak bezain udazkeneko da antzerkia Azpeitian. Azaroarekin batera datoz aurten ere Euskal Antzerki Topaketak herrira; 34. aldia dute, ondo eta sendo errotutako egitasmoa direnaren erakusgarri. Hilaren 1etik 26ra, gaur egun euskaraz egiten ari den antzerkiaren erakusleho oparoa izango dira, beste behin, Topaketak.

Urteetan hutsik egin ez duen osagai bat faltan izango dute, hala ere: Azpeitiko talderik ez da izango aurten Topaketetan. 1983ko lehen ediziotik gaur arte, herriko antzerki talde amateurrek ia hutsik egin gabe izan dute tarte programazioan. Antxieta taldearekin hasi zen tradizio bihurtuko zena. 2003an desegin zen behin betiko Antxieta, baina ordurako Lakrikunek hartua zion lekukoa, Topaketetako emanaldiei dagokienez. Lakrikunek lanean jarraitzen du, azken urteetan hiruko formatuan; 2014an jaso zuen azkeneko Topaketen Ikusleen Saria, *Non gaude?*-rekin. Azken urteetan, berriz, iaz arte, Emakumeen Antzerki Tailerrak ere urtero agertu du Soreasun ikasturte bakoitzean landutakoa.

Emakumeen Antzerki Tailerrik ez dago, ordea, aurten, eta Lakrikunekoak ere ez dira ariko Euskal Antzerki Topaketetan. Baina Soreasura besteak beste herritarren aurpegi ezagunen bila joaten direnek ez dute aitzar-

||| “Momentu honetan ez dago, baina zeinek esaten du hurrengo urterako ez dela zerbait sortuko?”

ALAITZ OLAIZOLA
aktorea eta antzerkigilea

||| “Esperientzia zoragarria izaten ari da. Askok betetzen nau antzerkiak eta gehiagora joan nahi dut”

AINHOA CASINA
aktorea

||| “Topaketen egitaraua iristen zaidanean, faltan botako dut emakumeen taldea”

EKAIN IBARGUREN
aktorea

kiarik izango, asko baitira aurten ere oholtzara igoko diren azpeitiarrak.

“Sekula baino osasun hobea”

Erika Olaizola *Francoren bilobari gutuna*-rekin dator, azaroaren 4an; hilaren 5ean Nagore Aranburu izango da Soreasun, *Koadernoia zuri* antzezlanean. Eta tropelean igoko dira azpeitiarrak oholtzara azaroaren 18an, Zestoako Antzerki Eskolaren Eromen Produktzioak-ek aurkeztuko duen *Sweeny* obrarekin; parte hartuko duten hogeitazero aktoreetatik zortzi dira Azpeitikoak: Leire Egaña, Mireia Galarza, Ainhoa Odriozola, Estitxu Elduaien, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Ainhoa Casina eta Ekain Iburguren.

Herriko talderik ez, beraz, Topaketetan, baina herriko aleak sorta ederra osatzeko adina bai. Antzerkigintzaren bueltakoek Azpeitian “sekula baino osasun hobea” dutela dio, izan ere, Alaitz Olaizolak (Azpeitia, 1975). Eta bada norbait Olaizola herriko antzerki munduan. Antxieta azken urteak barrutik bizi izan zituen; Lakrikunen ia hasieratik dabil, gaur arte; Emakumeen Antzerki Tailerrak iraun zuen hamabi urteetan bera izan zen gidaria; eta orain dela hamaika urtetik egiten diren umeentzako tailerren ardura ere berea da, idatzi dituen obrak ahaztu gabe.

Antzerki Topaketen karteletan aurten ez da herriko taldeen irudirik azalduko, “eta badakit pena bat dela hori”, dio Olaizolak. “*Non*



Ezkerretik eskubira, Alaitz Olaizola, Ekain Iburguren eta Ainhoa Casina, Lakrikunek Izarraitz frontoian duen lokalean..

gaude? estreinatu genuenean, egun batean gu eta aurrekoan emakumeen taldea aritu ginen, eta bietan aretoa leporaino bete zen. Hori kristorena da antzerkia egin behar duenarentzat, publikoa nolabait bermatuta daukazulako, eta ikustera datorrenarentzat ere beti dago ikusmin puntu hori. Momentu honetan ez dago halakorik, baina zeinek esaten du hurrengo urterako ez dela zerbaite sortuko? Uste dut ez dugula hartu behar, inondik inora, bukatu den zerbaite bezala”.

Emakumeen eta umeen tailerrekin egiten den harrobi eta transmisio lanaren garrantzia azpimarratzen du Olaizolak. “Uste dut esan beharra dagoela sekula baino osasun hobearekin dagoela [antzerkia]. Beti ikusi izan ditugu zale asko Topaketetan, baina eszenatoki gainean egon dira zortzi emakume edo Lakrikuneko zazpi. Eta orain, adibidez aurten bertan, Erika Olaizola dator Lipusekin-eta, beste fase batean dago jada; iaz, Ane Arenas ere beste talde batekin zegoen jada; gazteak etorriko dira Zestoakoekin; Ekain Iburguren ari da bere kabuz ere; gazteek jarraitzen

dute, June Urain Azkoitiko musikalean... Eta txikietan ere artista hutsak daude”.

Soreasura, Zestoatik bueltan

2016ko Antzerki Topaketetan ariko diren azpeitiarretako bi dira Ainhoa Casina (1978) eta Ekain Iburguren (1996). Zestoako taldearekin etorriko dira biak, baina antzerki mundura iristeko jarraitu dituzten bideek badute alderik. “Beti egin nahi izan dut antzerkia. Baina gazteagoa nintzenean, beldurrek, segurtasunik ezak edo konplexuek eraman ninduten ezer ez egitera”, kontatzen du Casinak. Orain dela bost urte eman zuen, azkenean, pausoa; sabel dantza eskoletan zebilen Zestoan, Amancay Gaztañagarekin, eta Gaztañaga beraren gidaritzapean sortu zuten antzerki eskolan hastea erabaki zuen. Eta ez zaio damutu: “Esperientzia zoragarria izaten ari da. Asko betetzen nau antzerkiak, eta gehiagora joatea nahi dut, gainera”.

Iburguren, berriz, txikitatik dabil antzerki munduan, antzerkia bera baino “espektakuluaren eta ikuskizunaren mundua” gus-

tatzen zaizkiola aitortzen duen arren. 10 bat urterekin hasi zen umeentzako aurreneko antzerki tailerrera joaten eta bederatzita urte egin zituen han Alaitz Olaizolarekin. Tailerreko kide batzuekin pailazo taldea sortu zuen. Eta, gaur egun, Zestoako eskolan ez ezik, ikuskizun propioarekin dabil, Ekain-Txou bezala.

Casinak Zelaitxon ezagutu zituen Euskal Antzerki Topaketak, “eta niretzako hura zen... Oskarretako gala balitz bezala!”. Iburguren, berriz, Soreasu zaharrera aitarekin pare bat aldiz joan zen, “baina ez nik nahi nuelako, eramaten nindutelako baizik”. Gerora hasi zen bere kabuz eta gogoz joaten. Herriko talderik ez egoteak ikusle askorengan hutsune sentsazioa eragin dezakeela uste dute biek; emakumeen taldea ez egoteak penatzen du bereziki Iburguren, “egitaraua iristen zaidanean, faltan botako dut”, dio. Herrikoak izateak ikusleen babesa bermatzen duela diote, eta horixe nahiko lukete beraiantzat ere; azpeitiarrik ez delako faltako aurten ere Soreasun. “Haria ez da eten”, Alaitz Olaizolak dioen bezala.✱

Patria eta

Arrabalenarekin bat etorri zuten Vargas Llosaren aurreko andregai gehiago gustatzen bazitzaigun ere bere azken artikulua positiboki harritu ninduen. *El precio de la paz* titulupean Kolonbiako bake prozesuaren aldeko jarrera agertzen zuen. Berak ere, aukera izatekotan, baiezko botoa emango zukeela adierazten zigun. Hector Abad Faciolincek aste pare bat lehenago idatzitako *Ya no me siento víctima* artikulua konbentzitu zuen nonbait, artikulua onak liburu onak bezainbeste gustatzen omen zaizkiolako. Faciolincek badu Borgesen hitzetatik lapurtutako titulu zoragarri bat duen liburua, *El olvido que seremos*. Horrek ere merezi du. Udal Liburutegiko katalogoan falta da. Bakearen, edo memoriaren, edo elkarbizitzaren, edo errelatoen, edo giza eskubideen, edo dena dela deituko litzatekeen liburutegi batean egoki kabituko litzateke. Magrisena eten behar izan nuen eta zinemaldia *American Pastoral*-en zain eman nuen nobelarekin konparatze tonto horietako baterako.

Fernando Arambururen *Patria*-ri eta Edurne Portelaren *El eco de los disparos*-i denbora gehiegi dedikatzen ari ginela erabaki zidan adiskideak. Promozio eta publizitate handiko literaturaz, proposamen komertzialez, kezkatzen ginela, merezi ez zuten gainbalioa ematen geniela eta ez zegoela hura denbora galtzeko. Inork baino hobeto ezagutzen zituela, nola ez berak, idazleen miseriak eta barkatu ere, bere buruari barkatu beharraz barkatzen zizkiela, baina miseria miseria zela, ez beste. Gure azken mende erdikoaren fikzioa idatziko duen Tolstoirik ez duela eman gaztelerak. Eta geu ere beti gai berdinari bueltak emateari utzi beharrean geundela literatura handiari arreta gehiago jartzeko. Giorgio Bassaniren *La novela de Ferrara* (*Il romanzo de Ferrara*) oparituko zidala (*Finzi-Continitarren lorategia* besterik ez dago udal liburutegian).

Fnacera sartu nintzen miserien, edo mise-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Zakurra ehizean bezala ibili nintzaien atzetik galdera egiteko parada bila, baina ez nintzen ausartu

rableen, literaturako azken alea erostera, Victor Erice zine zuzendariaren emazte ohi eta idazlearen heriotza aitzaki idatzitako, *Los últimos días de Adelaida García Morales* erostera (hau ere ez dago liburutegian). Mostrodoan liburu baten galdezka ari ziren azpeitiarrak eta ama alabak iruditu zitzaizkidan bi emakume. *Patria* zeukaten eresia. Gehiegixko iruditu zitzaidan zergatik erosi zuten nobela hori galdezka hastea. Zakurra ehizan bezala ibili nintzaien atzetik galdera egiteko parada bila. Ate ondoraino jarraitu nien baina ez nintzen ausartu galdetzerara. Haien arrastoa utzi eta etxera bidean aurrera, berriro atzera egitekoak eman zidan aurkituko nituelakoan eta galdera gaizki hartuko ez zidatelakoan. Kale! Horretan gelditu zen oraindik barruan daukadan jakin mina.

‘Patria’, Azpeitian

Espanian 50.000 saldu baditu idazle donostiarrek, Azpeitian 15,58ko proportzioa saltzea dagokio. Ama alaba horien alea, gehi udal liburutegian dagoen bestea, 13,58 dauzkat atzemateko, 13,58 arrazoi ezberdin, seguruenera, Azpeitian ere. Jakin minik ezin ase eta Tolstoi guztiak apaletan, lo.✱



JAIONE UCIN finantza-aholkularia

“Aurreztaile tradizionalak inbertitzaile izatera pasatu behar du”



Banku Zentralen moneta politikaren ondorioz, interesak %0an edo negatiboan daude. Interes mota horrek luze joko du Europan, eta, ondorioz, gordailugile tradizionalak kaltetuak izango dira. Egoera horri aurre egin, eta errentagarritasuna lortzeko asmoz, Bankoak inbertsio aukera berriak eskaintzen ditu.

Nola lor daiteke errentagarritasuna krisi garaian?

Epe finkoko ezarpenekoa den aurreztaile tradizionalak ezin du bere eros ahalmena mantendu interes tasa 0 edo negatiboan badago. Horregatik, aldaketa ematea dago; aurreztaile izatetik inber-

titzaile izatera pasatu behar du. Aldaketa segurtasunez eta konbentzimenduz egin behar da, eta horretarako finantza aholkulari ona ondoan izatea ezinbestekoa da. Merkatuaren eboluzioa eta finantza produktuen inguruko informazioa ondo ezagutzen duen aditua alboan izatea, alegia.

Zer inbertsio aukera eskaintzen ditu Bankoak?

Inbertitzaile izateak ez du esan nahi arriskatzea; kontrakoa, baizik. Gure finantzen gaineko errentagarritasun helburuak lortzeko, lagungarria den planifikazio berri bat erabiltzea adierazi nahi du. Zentzu horretan, era guztie-



Jaione Ucin, Bankoak Goiko Kalen duen banketxeko bulegoan.

tako inbertitzaileentzat ditugu proposamenak, pertsona zehurrenengatik hasi eta aursarteenera. Kontua da, aztertzea eta ikustea profil bakoitzera, helburu bakoitzera zer eskaintza egokitzen den ondoena, adostutako erren-

ta-helburuak lortzeko. Inbertsio aukera pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, eta bezero bakoitzaren diru-zorroaren jarraipena egiten dugu, jarritako helburuak lortzen ari garen berraztertuz eta estrategiak aztertuz.*

GORDAILUA FUNTSEKIN AUKERA ZABALA, ZU ZEUK AUKERATZEKO

Zure inbertsioaren
% 50 urte 1erako
gordailu batean: **% 0,90 UTB**

Eta gainerako % 50 inbertsio-funts batean

Gutxieneko zenbatekoa: 24.000 €.

Argazkilaritza eta literatura

Lehiaketa

IRUDHITZEN

*Honako helbidera bidali behar dira argazkiak:
lehiaketakuztarria@gmail.com,
azaroaren 18a baino lehen.

*Epaimahaiak aukeratutako 12 argazkirekin
2017ko egutegia-kaleratuko du Uztarriak.

4



AZPEITIKO
KULTUR MAHAIA

HITZ GEZIDUNAK

	Itsasontzia gidatzekoa	Deitura	Emakume izena	Zizela	Naroa
	Eginkizun	Karta iragarle	Modu atzizkia	Afrikako hausnarkari	
	Itsasgizona				
	Garaienak				
	Begi-okerrak	EH-ko kazeta		Adar	
Gari sorta	Erbia		Txistua, listua		
		Hegazti handiena			
		Atzizkia			
Kristoren jarraitzailea				Amerizioa	
Izena				Apar	
		Herri hizkeran, eta		Lehen bikoitia	
		Informazio banako bitar		501	
Egiteko		Atzizkia		Du, niri	
Sumagaitza		Egiptoar jainkoa		Bokal errepikatua	Atx!
Beldurtia, izutia				Putre	

Egilea: Luma

* Atleta azpeitiarra

SUDOKUA

		8			9	3		
					1		7	4
			2	3		5		1
							2	3
3			4		8			7
7	6							
9		5		8	2			
1	8		7					
		6	3			1		

IRAUR

MASAJE - OSTEOPATIA


Bustinzariko Erresola 13. etxea
Mug. 676 299 370

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Dinetako reflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estructurala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Azaroak 21 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillok emandako urdaiazpikoz, hestebetez eta gaztaz osatutako produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 NOR DA?

2 NOR DATOR?

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

I	A	S	●	A	I	A	T	A	K	A	K	●
A	Z	I	A	I	G	I	R	A	B	A	B	N
●	T	I	D	●	E	B	●	N	A	L	●	
A	I	A	●	A	T	A	●	E	R	E	N	
M	A	●	A	U	A	T	S	I	R	K	●	
A	K	A	●	R	U	S	T	O	S	A	●	
A	R	A	●	A	R	A	●	G	A	●	●	
A	L	A	●	N	E	I	R	A	M	●		
N	U	Z	●	I	K	E	T	E	B	●		
●	Z	●	A	●	B	●	L	●	●	●		

SUDOKUA

8	4	1	5	1	7	6	3	9	5	2	7
9	6	2	5	8	3	7	4	6	2	1	8
6	3	7	8	2	7	3	9	6	4	5	1
5	1	8	2	1	8	1	5	7	9	4	3
7	9	7	4	5	8	6	9	7	2	1	4
3	2	1	4	5	8	6	9	7	2	1	4
8	5	9	6	1	7	4	2	3	1	8	5
1	8	5	4	3	2	7	6	9	8	1	4
4	7	4	9	1	9	7	4	8	2	5	3
2	6	2	9	3	6	2	1	8	5	7	9

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Madagaskar **2** Biberioa

|||UZTARRIAREN EKAINEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Aiora Olaizola eta Gurutze Eizmendi Uztarria Komunikazio Taldearen bazkideak dira aldizkariko 187. lehiaketaren irabazleak. Kutxilloren produktu sorta irabazi dute sari gisa. Argazkian irabazleak, Kutxilloren produktu sorta eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 658 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damao Azkue 6

|||BOTA LASAI!|||||



▲KALE-INKESTA.

'Bota lasai!' kale-inkesten atala jarri du martxan Uztarria.eus-ek. Azpeitian zeresana eman edo interesa pizten duten gaiak edota gai orokorragoak oinarri hartuta, kaletik ibiliko da Uztarria herritarren iritzia biltzen. Aurrerantzean, hilean bi 'Bota lasai!' saio izango dira ikusgai, eta lehen atala argitaratu da. Azpeitian festa ugari daude, eta beste horrenbeste festa egun: Baserritarren eguna, txakolin dastaketa eguna, ardo eguna, elkartasun eguna, Sanjuandegiko eta Marea Arroxaren ume eguna... Hala ere, bada beste hainbat ideia dituenik ere, eta horren inguruan galdetzera atera da Uztarria kalera. |||||Uztarria|||

|||EFEMERIDEAK|||||

1755

Lurrikara txikia. Sentitu zen Gipuzkoan; Azpeitian, kasu.

1847

Urrestilla. Herria sortzeko eman zioten agindua, betiere Elosiaga eta Nuarbekin bat eginik. Aratz-erreak eta Matxinbenta auzoek, berriz, Azpeitirekin bat eginik jarraituko zutela adierazi zen.

2001

Agurra. Urrian Pumorin (Nepal) hildako Beñat Arrue azpeitiarra eta Iñaki Aiertza omendu zituzten Izarraitz frontoian.

2004

Elegante Eguna. Jose Mari Bastida orduko alkatearekin izandako liskarreatatik bina urteko kartzela zigorra eta isunak jaso zituzten herriko bederatziz gaztek.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.★



Elikadura jasangar

MIKEL YEREGI Total trainingeko irakaslea

Dietetikako azken Mundu Kongresuan, elikadura jasangarriagoa lortzeaz asko eztabaidatu zen, hau da, gure ingurunea gehiago zainduz elikadura errespetagarriagoa ere eraman dezakegula.

Modu erraz batean asko egin dezakegu eta kla-beetako batzuk hauek dira: gehiegi jaten dugu eta lehen urratsetako bat gutxiago jatea da.

Bestetik, haragi kontsumoa gutxitzea komeni da, batik bat abelgorri haragia. Izan ere, kilo bat protei-na lortzea abelgorritik askoz ere garestiagoa da egoskarietatik lortzea baino, ur askoz gehiago behar duelako, ongarri gehiago eta baita pestizida gehiago ere.

Bestalde, bertakoa, garaikoa eta freskoa jatea komeni da. Zeelanda Berriko kiwiak, Peruko esparragoak, Irango pistatxoak edo Brasilgo soja jateak izugarriko gastua du garraioan eta mantentzean, eta, gainera, nutritiboki galerak begibistakoak dira. Etxekoa kontsumitzeak bertako ekonomia garatzen laguntzen du, gure onura nutritiboa lortzeaz gain.

Gezurra badirudi ere, datuek diotenez, XXI. mendean –ustez asko dakigun garai honetan–, elikagaien ia laurdena zaborretara botatzen dugu.

Al, eta jende ugari gosea jasaten ari da, beste batzuk oparotasunean bizi garen bitartean!*



|||||||aitziber aizpuru|||||||



- 1. Zer da total training?**
Gorputzeko atal guztiak lantzeko taldeko jarduerak.
- 2. Zer egiten duzue?**
Indar eta abiadura jarduerak, zortzi bat ariketez osatutako zirkuituan: saltoak, abdominalak, 'sentadillak'...
- 3. Arropa zabala, estua?**

- Erosoa eta arina.
- 4. Gustuko erritmoa?**
'Bakalaoa', motibatzenko.
 - 5. Gogorra al zara?**
Ikasturtea aurrera joan ahala, gero eta zorrotzagoa naiz.
 - 6. Zer ikasle dituzu?**
19-45 urteko 40 bat; gizon eta emakumeak paretsu.

- 6. Kirol ezaguna al da?**
Crossfitarekin nahasten du zenbaitek.
 - 7. Modan den kirola da?**
Spinningek eta pilatesek indar handia hartu dute, baina Total Traininga ere indarra hartuz doa.*
- Ainitze Agirrezabala

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euzkai Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 15 40

Lanaldia:
943 15 15 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS

Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA

Jose Gado, 28
Tel. 943-850445
AZKOTIEA

Prima Vera da Johnny
pizzeria

943 083 460

facebook.com/laprimaveradajohnny

adi
ARTE ETA DIBENU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arrese kalea, 3
943 81 28 05
arredadibenu@gmail.com
Matxak urte osoan zabalik

uba
OHNIKALITZA

Aholkularitza
libretu
komertzio
santabilerak

Getxari lanak
Finanzen administrazioa
Getxari inmobiliarioa

Tfn: 943 137 222 Fax: 943 137 272
Euzkai Herria, 42 • 20730 AZPEITIA

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfn: 943 81 5088
Fax: 943 15 03 62

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

INTZA ETXEBERRIA AGIRREZABALA
Fisioterapia - Osteopata

Tel. 943 81 80 00 • Jose Arrese 3, 20730 AZPEITIA

Bizipenak liburuan

Miren Odriozolaren ibilbidea jaso du Leire Ibarzurenek, bereziki El Salvadorreko gerran internazionalista gisa bizitakoak. 📌📍 Lorea Seguro

Badu zer kontatua Miren Odriozolari buruz (Azpeitia, 1944) liburu bat idatzi nahi duenak; eta horixe egin du Leire Ibarzurenek (Azpeitia, 1979). El Salvadorre-
ra bidaiatu du horretarako, eta Odriozolare-
kin gerran ibilitako hainbat lagun elkarrizketatu
ditu han. Izan ere, 80. eta 90. hamarkade-
tan El Salvadorreko gerrako frontean egin
zuen lan Odriozolak. Euskal Herrira itzuli,
eta 65 urte zituela, berriro ere Erdialdeko Ameri-
ketako herrialdera itzultzea erabaki zuen, la-
nean jarraitzeko asmoz. *Laura esaten zioten*
liburua Txalaparta argitaletxeak eta Emagi-
nek elkarlanean argitaratu dute, eta azaroa-
ren 26an aurkeztuko dute, 12:00etan, Sana-
gustin kulturgunean. Narrazioaren ardatza El
Salvadorren bizitako gertakizunak badira
ere, noizean behin irakurlea Euskal Herrira
begira jarriko da, Odriozolak hemen izanda-
ko borrokak ere ezagutzeko. Izan ere, Udal-
biltza kasuko epaituetako bat izan zen.

Herrigintzaren eta feminismoaren gaineko
lantaldeetan ezagutu zuten elkar Odriozolak
eta Ibarzurenek, 2007an. Ordurako, Ibar-
zurenek bazekien Odriozola El Salvadorreko
gerran izan zela. “Hala ere, ez nekien oso ondo
zer esan nahi zuen horrek”, azaldu du Ibar-
zurenek. “Hasieran, konfiantza faltagatik edo,
ez genion Mireni galderarik egiten. Tarteka
kontaktzen zizkigun istorio txikiak; eta gu
gehiago jakiteko gogoz beti. Miren beti izan
da oso pertsona apala”. Egun batez, ordea,



Odriozola, Arcataon, 1993. urtean. ■■■ M. Odriozola

Odriozolak gauza gehiago kontatu zituen la-
gunartean: gerrako ihesaldiak nolakoak izat-
en ziren, zer zen gerrako ospitale batean lan
egitea... “Gogoan dut egun hura; Mirenen bi-
zitza idatziz kontatzeko gogoia sentitu nuen”.

2009an, FMLN Nazio Askapenerako Fara-
bundo Marti Fronteak irabazi zituen haustes-
kundeak. Ibarzurenek ondo gogoan du
Odriozola pozez zorutzen ikusi zuela hautes-
kudeen emaitza jakin zen egunean. Handik
gutxira, 65 urterekin, Odriozola El Salvado-
rreko itzuli zen. “Mirenek orduan ere erakutsi
zuen herrialdearekin duen lotura estua; eta
nik lotura hori ezagutu nahi izan dut”.

Odriozola ezustean harrapatu zuen Ibar-
zurenek berari buruz liburu bat idazteko pro-
posamenak. “Hasieran, lotsa eman zidan.

Baina gogoratzen dut bi gauza esan zizkida-
la, zer pentsatua eman zidatenak: lehenen-
goa, nik bizitako esperientzia jendearekin
partekatzea interesgarria izan zitekeela; eta
bigarrena, orokorrean, emakumeen espe-
rientzia gutxi kontatu ohi direla. Konbentzitu
ninduen, baina oraindik ere badut bertigo
pixka bat”.

Elkartasunaren balioa

Liburua idazteko erabakia hartuta, Ibar-
zuren lagun batekin El Salvadorre joan, eta
Odriozolarekin gerran ibilitako hainbat lagun
elkarrizketatu zituzten biek. Ustekabea izan
da salvadortarrek Odriozolari eta bera bezala
gerran izan ziren internazionalistei dieten es-
timua. “Oso esker oneko jendearekin egin
dugu topo. Gustura zeuden elkarrizketatuak
izaten ari zirelako; eskerrak ere eman dizki-
gute proiektu honetan parte hartzen uzteagatik.
Harrituta gelditu ginen: bonbengatik edo ar-
mengatik baino gehiago, gerrako eguneroko
sentipenez hitz egin ziguten. Gerran bizitzea
zer den jakin ahal izan genuen; bere gogorta-
sun guztiarekin, baina elkartasunaren balioak
benetan sentituz. Argi gelditu zaigu salvado-
rtarrek zenbat baloratu zuten elkartasuna mu-
turreko egoera hartan; bai elkartasun inter-
nazionalista, baita euren arteko elkartasuna
ere. Mireni ere estimu ikaragarria diote”, gai-
neratu du Ibarzurenek.

Odriozolak uste du gerra bezalako egoera



Miren Odriozola El Salvadorreko Arcatao udalerrian, Chalatenango mendiak atzean dituela, 1993ko abuztuan. || Miren Odriozola

gogor batean, eta gainera, hainbeste urtez bertan izanda, oso harreman estuak egiten direla: "Denetarik bizi izan genuen han. Egin nuen ekarpena asko estimatu izan ohi didate salvadortarrek. Eta horretaz aparte, oso pertsona maitekorrak dira".

Politikarekiko zituen uste sendoek bultzatu zuten Odriozola munduan zehar bidaiatzera. Izan ere, El Salvadorrera lehenengo aldiz joan aurretik, ez zuen inongo loturarik herrialdearekin; ezta bertara joateko asmorik ere: "Garai hartan, asko hitz egiten genuen Kubako iraultzaz. Kubako sozialismoa ezagutzea nahi izan nuen hasieran, baina oso zaila zen hara joatea. Orduan, Venezuelara joan nintzen, gero Nikaraguara joateko asmoz, han ere iraultza izan baitzen. Venezuelan nengoe-la, El Salvadorreko berri izaten nuen eguneror: Monseñor Romero erail zuten, herritar asko hiltzen ziren eguneror, eta gerrilla sortu zen. Nikaraguara joan nintzenean, salvadortar batzuk ezagutu nituen, eta euren herrialdera joan nahi al nuen galdetu zidaten. Horrela amaitu nuen El Salvadorren. Hiru urte

igaro ziren bidaiari ekin nionetik hara iritsi nintzen arte".

Gerra amaitzean, zer?

Osasunaren arloan jardun zuen lanean Odriozolak El Salvadorren. Gerra amaitu eta hurrengo bi urteetan eraikuntza lanak nagusitu ziren herrialdean: puskatutako bideak eta etxeak berreraiki behar izan ziren. Baina baita lanik oinarritzkoenak ere: landa-guneetako etxe gehienek ez zuten komunik ere, eta gabezia horrek gaixotasun asko eragiten zituen. Hamabi urte geroago itzuli zenean, aldaketa asko ikusi zituen Odriozolak: "Puskatuta zeuden bideak konpondu zituzten, autobide pila bat egin zituzten eta argindarra iritsi zen toki askotara. 2009. urtean, berriz, FMLN alderdiak hauteskundeak irabaztean, batez ere osasungintzan eta hezkuntzan egin ziren aldaketak. Mendingo bizi zen jende askok ordu arte inoiz ez zuen mediku bat ikusi, adibidez".

Gogorra izan zen, Odriozolaren ustez, gerra ezagutzea. Hala ere, harremanik one-

nak egoera gogorrenetan egiten direla uste du. "Frontean, kanpamenduetan bizi ginenean, familia bat ginen. Dena elkarbanatzen genuen. Gogorra izanda ere, oso harreman solidario, xamur eta estuak egin genituen; eta jendea alai zen". Gerra amaitu eta urte batzuetara itzuli zenean, ordea, bestelakoa iruditu zitzaion egoera: arreta deitu zion lehen gauza jendearen tristura izan zen. "Gerrillako jende askok gerra bakarrik ezagutzen zuen; eta hura amaitzean, batzuk ez zuten jakin egoerari aurre egiten. Gerrilla familia zen, eta hura amaitzean zerotik hasi behar izan zuten, bakarrik. Gainera, batzuei begi bat, hankak edo beso bat falta zitzaizkien. Gerran, borroka egin behar bazuten ere, eta jateko gutxi bazegoen ere, biziraun ahal izateko jatordua bermatuta zuten. Baina gerrillakoek ez zekiten gerraz kanpoko ofiziorik. Gainera, gerrillak ez zuen boterea hartu, eskuinak jarraitzen zuten agintean. Noski, alderdi eta sindikatu guztiak aske ziren, lehen ez bezala. Baina miseriak han jarraitzen zuten, eta herritar askoren itxaropenak ez ziren bete".*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (AZAROA)

1-5-6-11-17-23-30
Beristain (Azpeitia).
943811949

4-7-14-22-28
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

2-9-16-21-26-27-29
Jacome (Azpeitia).
943 080258

8-12-13-18-24
Alberdi (Azpeitia).
943815974

3-10-15-19-20-25
Eizagirre (Azpeitia).
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN
Jacome (Azpeitia).
943 080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 30ean izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOIA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



LIBURU SOLIDARIOAK.

Herritarrek dohaintzan emandako liburua salgai jartzen ditu Amaia Garmendiak zapaturo (11:00-14:00), plazan jartzen duen postuan. Lortutako dirua Tanzanian misiolari duen anaia Mikelen proiektua laguntzeko bideratzen du.*

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

VANESSA CERRAJERO

Triatleta

“Lehentasuna gozatzea dun, ez markak egitea”

Duela 11 urte hasi zen korrika, eta ordutik mendi lasterketak eta duatloiak egin ditu. Triatloizalea da orain.  **Ainitze Agirrezabala**

Nondik datorkin afizioa?

Beti egin dinat kirola; gimnasia erritmikoa, ikas kirolak, aerobic... Duela hamaika urte, ama izan nindunan, eta orduan hasi nindunan korrika. Aurrena, krosak egin nitinan; gero, maratoi erdiak eta mendi lasterketak. Duela lau urte, Zumaiako triatloian parte hartzera animatu ninduten lagun batzuek. Igerian ez nindunan oso ongi moldatu, baina oso gustura bukatu ninan proba. Orduan, Izarraitz Igeri Elkartean hasi nindunan, eta Zarauzko triatloia egin ninan.

Nola moldatzen haiz entrenatzeko?

Zumaiako Triatloi Taldeko kide naun, eta as- tean bost-sei egunetan entrenatzen dinat. Ez dinat dieta berezirik segitzen. Lana eta bi se- merekin ez dinat astirik izaten batzuetan, baina kirola egitea izugarri gustatzen zaidan; egunerokoa ihesbidea dun, erlaxatzeko bidea, eta argi dinat lehentasuna gozatzea dela, ez markak egitea.

Zer modalitate dun nahiago?

Korrika. Duatloiak gogorragoak ditun, baina gustuko ditinat, eta igerian ere gero eta ho- beto moldatzen naun. Triatloietarako afizio

sendoa ari dun sortzen; modan daude.

Zer proba dun gustukoena?

Izarraizko Bertikala eta Zarauzko Triatloia be- reziak ditun. Gainera, inork ez zinan uste Za- rauzkoa bukatuko nuenik, eta eskualdeko lehen emakumea izan nindunan sailkapene- an. Donostiako maratoia ere egin ninan iaz, go- gorra izan zunan, baina gustura bukatu ninan.

Zer mailatan aritzen haiz?

Oro har, eskualdeko probetan, baina udan Valladolideko Ironman erdia egin ninan. Orain arte egin dudan proba luzeena dun. Gogorra izan zunan, bero egiten zinan, baina emakumeetan hirugarren bukatu ninan.

Zer asmo dun aurrera begira?

Ilusioz jarraitzea, eta egunen batean Ironma- na egitea. Gustura probatuko ninake!

Amuletorik-edo eramaten al dun?

Bai, bizikletan bi semeen izenak ditinat ida- tzita, eta entrenatzaile bezala gidatu nauen Egoitz Arrutiren argazkia dinat josita galtzer- dietan. Gurasoei eta gertuko pertsoneri es- kerrak eman nahi zizkienat, ematen didaten babesagatik. Helmugan sartzen naizenetan, berriz, amama zenarekin gogoratzen naun.*



1

1. Azkoitiko duatloian korrika, eta ibilbidean animatzen ari zitzaizkion bi semeak agurtzen.
2. Zumaiako Triatloi Taldea gerra-oihua egiten.
3. Izarraizko bertkalean, Xoxotera bidean.



2



3

Herrero, irentzaile

Jainkoaren bideak asmaezinak direla esaten dut nik, askotan, gauzak zer dela eta etortzen zaizkidan burura ez dakidanean. eta zergatik etortzen dira akordura oroitzapen, pertsona, gertatu jakin batzuk, eta ez beste batzuk? badakit internetera joz gero, galdera itxura antzean formulatu, eta baldar eginda ere, erantzuna jasoko dudala. dena interneten dagoela esaten dute, baina gezurra da. nahiz eta nire galdera horren erantzuna niri sareak eman, dena ez dago interneten. ez dago. eta nire galdera horren erantzuna emango balit ere, bost inporta. neurozientziaren batek giltza askatuta ere, sentipen horixe nik, ez dudala nire buruaren pentsamenduaren norantza zuzentzeko ahalik. hor dabil hori beti libre, gogo ilunak ematen diona gogo axalera ekarriz. eta, hortaz, zer dela eta etorri zait herrero gogora? lagun-onakeko haundien entrenatzailea izan zen aspaldi, oso aspaldi, oso txikiak gu, batere eskatu beharrik gabe garmendipera libre sartzen uzten gintuzten, behintzat. prakamotxetan ibiliko ginen garaian, seguruenera. ez genuen futbola entenditzen. gure auzoak ikusten genituen han, edo jakiten genuen lagun-onaken jokatzeko zutela, eta gauza haundi xamarra zen. herrikoak herriko ekiptoan, lagun-onak haundian eta lagun-onak txikian. baliteke kamixeta txuri-berdeak ibiltzea orduan, ez dakit, nire begiek lokatza besterik ez zuten ikusi egun hartan. eta ez dakit ez ote ziren bi egun izan. batean, partidua bukatu eta haserre herrero. oso haserre. hain haserre, bero-bero bere onetik irtenda. bukatuta zegoen partidua. gu, mutikoxkorak, kalera aldeko atearan atzean, jokalaria aldagelara hartu behar zuten bidean. bukatu da partidua eta bada toz jokalaria denak. han da arbitroa ere, eta herrero, haserre. hartu du baloia eta arbitroari bota dio, eta hau eta hura ere esan dio. lotsagabetik gora, inondik ere. ez dakit besterik izan zen, pentsatzen dut izango zela, baina iskanbila ez zela askoz gehiago izan uste dut.




|||||||miel a. elustondo|||

|||Eta zergatik etortzen dira akordura oroitzapen, pertsona, gertatu jakin batzuk, eta ez beste batzuk?

eta, orduan, zergatik etortzen zaidan behin eta berriz eta askotan burura irudi hura ez dakit. horregatik esaten dut jainkoaren bideak asmaezinak direla, esplikaziorik ez daukadalako. herrero, beti estimatu dudana, gogo onez agurtu izan dudana beti, oraintxe agurtuko nukeena. pasadizo hartaz akordatzen ote den galdetuko nioke... pentsatzen jarrita, oraingo eskola-kirolean –futbola, saskibaloia, gimnasia erritmikoa–, gurasoek, umeez, entrenatzaileek ibiltzen duten jarrerak eraman nau hortik. ez dakizuet. baina, orduan, zergatik ekartzen dit nire barruko buruak nire kanpoko burura irentzaileren irudi hura, joseinaziorena, herreroen garai hartan bertan, partidu hartan bertan edo beste batean, baina sasoiatsuan, penalti-txanda batean, lokatzen orduan ere, eta jokalariek penaltiak bota eta bota irentzaileri, haiek alde batera eta joseinazio kontrako aldera airean salto beti. beti miretsi ditudan bi, herrero eta irentzaile.*





AZPEITIA

XXXIV

EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK,
2016ko UDAZKENA



AZAROA

1, asteartea

ANTZERKI TOPAKETEI HASERA EMANEZ

L'entresor - Compañie Tâtes De Mules
17:00etan / 19:00etan, Plaza Nagusian

4, ostirala Helduentzat

"Francoren Bilobari Gutuna"

Arte Drama - Le Petit Theatre De Pain - Dejabu
21:30ean, Soreasu Antzokian

5, larunbata Helduentzat

"Koaderno Zuri"

Hika Teatrotan
21:30ean, Soreasu Antzokian

6, igandea IV. Antzerki Eskolen Eguna

Ehazek antolatuta eta Kabia Taldearen eskutik
antzerki ikerkuntza: Tailerrak Plaza Nagusian. Amaitzeko
ogitariekoak Sanagustin Kulturgunean

Haur + Helduentzat

"Gu"

Borobil Teatrotan
17:00etan, Soreasu Antzokian

7,8,9 Eskola edo Gaztetxoel Zuzenduriko Antzerkia

11:00etan, Soreasu Antzokian

2tik 15arte ZIRKOA ETA TXONTXONGILOAK

Corrado Masacci-ren txontxogilo tailerra eta
erakusketa, Betharram Aretoan

10, osteguna Helduentzat

"Sarean Kateatuak"

Nemofebrikak
21:00etan, Udaletxeko Ganbaran

11, ostirala Helduentzat

"Mami Lebrun"

Xake Produksioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

12, larunbata Helduentzat

"Bi Izarren Kalenturak"

Txalo Produksioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

13, igandea Haur + Helduentzat

"Futbolariak Eta Printzesak"

Edabe
17:00etan, Soreasu Antzokian

18, ostirala Helduentzat

"Sweeney"

Eroman Produksioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

19, larunbata Helduentzat

"E, Petrell"

Astrolabiu Teatrotan
21:30ean, Soreasu Antzokian

20, igandea Haur + Helduentzat

"Azken Eguzkillorea"

Patata Tropikala
17:00etan, Soreasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

24, osteguna

"Zerura Eroria"

Anodino Teatrotan
21:30ean, Gaztebisan

25, ostirala

"Mr. Señora"

Metrokoadroka
21:30ean, Gaztetxean
Arratsaldeko 20:00etatik 21:15etara jantoki bejeterianoa

26, larunbata

XXXIV.Euskal Antzerki Topaketan

Amalierako Ikuskizuna

Iñaki Bergara "Pio" eta Kontxu Odriozolari

AZKEN AGURRA.

KEINU ETA TXALO ZAPARRADA BAT

antzerkizale guztion partetik.

KONTZERTU ANTZEZTUA

"Ahantzitako Oroitzapenak"

Elkano Abesbatza
21:30ean, Soreasu Antzokian



ORTODONTZIA IKUSEZINA

-METALIK GABEKO ORTODONTZIA-



ERAIKUNTZA BERRIA

54 ETXEBIZITZA
1, 2 ETA 3 LOGELA

3 LOGELA
235.000€ IVA HASTA

**GARAJE ITXIAK;
BIKOITZAK ETA BANAKOAK**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

683 704 750

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

www.alberdienea.com